

# ONLINE ZUZENEAN IKASTAROA - Herri txikiak aurrera begira: auzolaneko kultura eta balioetatik etorkizunera



**18.Ira**

**Kod. X85-20**

**Edizioa**  
2020

**Jaduerara mota**  
Ikastaroa

**Data**  
18.Ira

**Kokalekua**  
Online

**Hizkuntzak**  
Euskara, Gaztelera

**Balio akademikoa**  
10 ordu

**ZUZENDARITZA**

**Ion Muñoa Errasti**, Deustuko Unibertsitatea



## **Antolakuntza Batzordea**



## Azalpena

Uda Ikastaro hau online zuzenean da, baina nahi izanez gero, **PRESENTZIAL** egiteko aukera dago. Ikastaroa presentzialki egin nahi bazenu, sakatu [PRESENTZIAL](#) gainean Ikastaroaren fitxan sartzeko.

Uda Ikastaro honen helburua da Euskal Herriko landa eremuko herri txikien etorkizuneko garapenerako, auzolanari lotutako kultura eta balio sistemetan egon daitezkeen indargune eta aukerei buruz hausnartzea. Horren oinarrian, Zerainlab elkarteak sustatuta eta Kutxa Fundazioak babestuta, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak azken bi urteotan garatutako "Auzolantzen" proiektua dago, zeinetan ikerketa eta gogoeta uztartu diren, balio sisteman, herri txikien etorkizunerako helduleku batzuk topatzeko. Ikastaro honetan, abiapuntu horretatik jauzi bat eginez, inguruko eta nazioarteko aditu eta arituak gonbidatu nahi dira gogoeta partekatua egitera.

## Helburuak

Euskal Herriko landa eremuko herri txikien etorkizunari buruz gogoeta egitea balio sistemaren eta kulturaren ikuspegitik.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



## Programa

2020-09-18

09:00 - 09:15 Erregistroa eta dokumentazio-banaketa / Registro y entrega de documentación

---

09:15 - 09:25 *Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena*

**Ion Muñoa Errasti** Deustuko Unibertsitatea - ikastaroaren zuzendaria

---

09:25 - 10:30 *"Kultura tradizionala, auzolana eta euskal herrietako garapen historikoa"*

**Patxi Juaristi Larrinaga** Mondragon Unibertsitatea - ikertzailea

---

10:30 - 11:30 *"Auzolantzen ikerketa: hainbat gogoeta auzolaneko balioen gainean etorkizunari begira"*

**Andoni Eizagirre Eizagirre** Mondragon Unibertsitatea - ikertzailea

---

11:30 - 12:00 atsedena

---

12:00 - 13:00 Mahai ingurua: *"Adituen solasaldia"*

**Isabel Elizalde** Eusko Ikaskuntza - Arduraduna

---

13:00 - 13:45 *"Itxiera hitzaldia: etorkizunera begira"*

**Ion Muñoa Errasti** Nazioarteko aditua. Erabakitze - Arduraduna

---

13:50 - 14:00 Sintesia

---

## Zuzendariak



**Ion Muñoa Errasti**

Deustuko Unibertsitatea  
(Zerain)

---

## Irakasleak



**Andoni Eizagirre Eizagirre**

---

Mondragon Unibertsitateko Irakasle Titularra. Filosofian Doktorea.



**Isabel Elizalde**

---



**Patxi Juaristi Larrinaga**

UPV/EHU Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

---

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) unibertsitateko irakasle titularra da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18



proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da. Ikerketako 2 seiurteko ditu, eta 5 doktorego tesiren zuzendari edo zuzendarikide izan da. Euskaltzaindiako euskaltzain urgazlea da (2012).

## Matrikula prezioak

**MATRIKULA**

**2020-09-18 ARTE**

[MATRIKULA DOAN](#)

0 EUR





## **Kokalekua**

**Online**

Online